

GURE LURRA ETA GU LURTARROK

(IV): **BIZKAI-LURRA** ARGIRIAN

Bigarren aldia amaitu dogu eta orain irugarrenera (Era tertziaria) sartzen gara: Gugandik urrago dagoalako obeto ezagutu geinke: Mendi-kate aundiak zelan sortu diran obeto esan geinke: Alpeak, Himalaia, Uralak, Kar-patoak, Andeak... emen sortuak dira, Auñamendi bera be bai. Olako mendi-barruetako pizti arrituak asko ager-tzen dira eta gaurko piztien antzekoak dira. Orregaitik esaten jako aldi oneri errodenen (mamiferoen) aldia. Mendi oneik ez dira izan ainbestean txautuak, erosiona-tuak, eta orregaitik daukagu erreztasun bereizia aztertze-ko.

Bizkai-lurra aztertzeke ez daukagu beste aldirik aldi onen lenengo zatia baiño. Lurra oraindiño itxaspean dago lenengo zati onetan baiña azkenerantza lur-ikara mendi-sortzaille bat izan zan eta itxaspeko lurrak gaiñe-ra atera ebazan. Aldi oneri eozeno esaten jako, egun-sentia esan gura dau gerkeraz, ortxe sortzen dalako gure lurra. Or sortutako mendirik aundiena Oiz mendia da eta orregaitik eragin oneri Oiz-eragiña esango dautsa-gu. Oiz-mendiak 1.041 m. dauz. Eragin onek lurralde zabala artzen dau. Asi Punta Galea'n eta Ermura arte eta zabalerea 3 km.'koa da, luzerea 45 km.'koa. Num-mulites deritxon piztitxua dago or mendietan arri biur-tuta. Pizti onek nummus edo txanpon-antza dauka, neu-rria zm bat eta iñoz 12 zm be bai. Orreik osotzen dabez, zenbat eta zenbat bear diran, Punta Galea'ko kare-etxeak.

Are-atxak be asko dagoz arlo onetan eta aldi oneta-koak, aizeak txaututa geienak. Orrelakoak dira Urdu-liz'ko are-arrobiak. Arrobi onek edertasuna kentzen dautso Santa Maria mendiari.

Goizalde deritxon eozeno aldi onetan asi zan Auña-mendi sortzen orain 50 milloi urte dirala. Auxe da ba gure lurren adiña.

Eragin onek goratu ebazan ondakiñez osotuak ziran lurpeko lur aberatsak eta gure lurralde au naikoa goian geratu zan. Orregaitik aurkitu leiz koralak Anboto-gai-ñean.

Akitan-mendiak eta Ibairu-mendiak askoz antxiña-gokoak dira, lenengo aldikoak. Eta oneik, ez dakigu zergaitik, alkarregana urreratu ziranean, gora jaso eben gure itxaspean egoan lurralde aberrats au. Orregaitik dira gure mendi-kateak lerro orreri gaiñera datorkoza-nak (perpendikularrak). Lerroa Akitaniatik ibero-aldera edo Asturi-aldera. Gure mendien egoaldea beti dau leu-nagoa iparralde baiño: Auñamendik egoa leunago dauka eta kantaurik bardin, esaterako Barazar'en edo Leire' n.

Sakon-uneetan zingirak geratu ziran esaterako Tre-biño'n edo Miranda'n edo Baldegobia'n edo Billar-kaio ta Medina de Pomar' en. Baiña aldien joanean legortu egin ziran eta gaur erri orreik dagozan leun-uneak geratu dira. Atlantik itxasoak Landak estaltzen ebazan. Bizkai'kolkoa gaur baiño askoz zabalagoa zan.

Euskalerriaren itxas-ertza ez zan gaurkoa lakoa: Lur-musturrak aundiagoak ziran eta ibaiak itxasora sartzen ziran tokiak askoz zabalagoak. Gero toki orreitara ondarrak jausi ziran (sedimentaziñoa) egin zan eta apurka itxas-ertza gaurko lekura etorri da. Ola-tuak be orretan bere lana egin eban lur-zatiak alde batetik bestera eroanez. Errekak osteria ondartzak asko ekarri eben eta alboak betetu egin ziran, gaur daukaguzan lez geratzeko, baiña ekintza ori aurrera doa, astiro-astiro.

Olazar'tar Martin'tek.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Bailia aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!